

EUSKARAREN HERRI HIZKEREN
ATLASA

IX
Lexikoa

Giza gorputza:

burua

gorputz-enborra eta gorputz-adarrak

Elikadura

Jantztea

Jantziak

Apaintzea

Oinetakoak

Sexualitatea, ugalketa

Hurtzaroa

Mapak 2060-2321

EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

BILBO

2018

EHHA egitasmoaren barruan, IX. liburukia ontzeko lagundu duten erakunde publikoak:

- Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia

EHHaren IX. liburukiaren argitalpenaren babeslea:

- Laboral Kutxa

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / Académie de la Langue Basque
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO.
<http://www.euskaltzaindia.eus>
E-mail: info@euskaltzaindia.eus

I.S.B.N. (lan osoarena): 978-84-95438-44-7
I.S.B.N. (liburukiarena): 978-84-946477-6-5
Legezko Gordailua: BI-625-2018
Inprimategia: Mccgraphics, S.Coop.
Diseinua: Koncepto, diseño y comunicación S.L.



EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASA egitasmoa
(2009-2018)

ZUZENDARIA: Arejita, Adolfo

ARDURADUNA:
Videgain, Xarles

KIDEA:
Aurrekoetxea, Gotzon

TEKNIKARIAK:
Abaroa, Aritz
Intxaurbe, Gorka
Jauregizar, Amaia

AHOLKULARIAK:
Atutxa, Isaak
Echaide, Ana María
Etxebarria, Jose María

EUSKALTZAINDIAREN ekimenez eta haren koordinaziopean sortua da obra kolektibo hau, eta EUSKALTZAINDIARI bakarrik dagozkio obra honen gaineko jabetza intelektualaren eskubideak, Jabetza Intelektualaren Legeari buruzko indarrean dagoen testu bateginak ezarritako moduan.

EUSKALTZAINDIAK beren-beregi agerrarazi nahi die bere esker ona argitalpen honetan parte hartu duten eta elkarrekin lanean jardun duten guztiei, horiek guztiak hurrenkera alfabetikoan aipatzen direla.

Abaroa Cantuariense, Aritz; Arejita Oñarte-Etxebarria, Adolfo; Atutxa Etxebarria, Isaac; Aurrekoetxea Olabari, Gotzon; Camino Lertxundi, Iñaki; Eguzkitza Bilbao, Andolin (†); Echaide Itarte, Ana María; Etxebarria Lejarra, Jose María; Etxebeste Zubizarreta, Izaskun; Haritschelhar Duhalde, Jean (†); Iglesias Chaves, Aitor; Intxaurbe Etxebarria, Gorka; Jauregizar Ormaetxea, Amaia; Letamendia Pérez de San Román, Juan Antonio; Oyharçabal Bidegorri, Beñat; Segurola Azkonobieta, Koro eta Videgain Castet, Xarles.

Aurkezpen-hitzak

Funtsezkoak dira hizkuntza bizien bilakaeran, dialektologia-ikerketak. Are esanguratsuagoak, zer esanik ez, euskararen kasuan, euskalkiek gorpuztu eta norabidetu baitituzte, urteetan zehar, euskal hizkuntzaren bilakaera eta ibilbidea. Horren jakitun izan da, hasiera-hasieratik, Euskaltzaindia, eta lan horri lotu zaio, gogo handiz, bere historia luzean.

Pausoak pauso, euskal dialektologiaren lanak behar zuen, ezbairik gabe, euskararen atlas linguistikoa osatzea. Horri ekin zion Euskaltzaindiak aspalditik, eta luzaroko engaiamendu baten emaitza modura, jada euskalgintzaren plazan dira Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) honen I., II., III., IV., V., VI., VII., eta VIII. liburukiak, IX. liburuki honen aurrekariak, hain zuzen ere.

Hortaz, berriro ere Euskaltzaindiak euskalgintzaren eta gizartean eskuetan jartzen du bere lana, uste baitu horretan datzala bere egitekoa. Egina dagoenak, aldiz, eginkizunak ere ekartzen ditu eta halaxe da, izan ere, EHHA honetan.

Bederatzi liburukiotan, arnas luzeko lan zehatza aurkituko du liburuki hauen orrialdeetara hurbiltzen denak, jardun ugariko ekarria. Baditu atzean ordu askoren nekeak eta lorrak, on-gaitzak eta gorabeherak. Ezin bestela izan, euskararen errealitatea esamolde, doinu eta soinu askotarikoa baita, oinarrizko batasunaren sustraian.

Errealitate hori bildu da, ikertu da, eta paperean eta euskarri informatikoan eman da, egungo atlas linguistiko duinek behar duten moduan. Ezin, beraz, aurrerantzean auzitan jarri, hau edo hura, zer non erabiltzen den eta zertarako, Euskal Herri osoa baitago horretan ordezkaturik.

Era berean, Euskaltzaindiak, paperean eta euskarri informatikoan ez ezik, EHHaren liburukiak bere webgunean (www.euskaltzaindia.eus) jarriak ditu dagoeneko eta oraingo hau ere berehala jarriko da. Badaki Akademiak, horrela jokatzuz, egitasmo honek duen balio estrategikoa berrindartzen duela eta, aldi berean, egungo premiek eskatzen duten horri beldurrik gabeko erantzuna ematen diola, lanaren nondik norakoak egoki adieraziz.

Osterantzeko asmoak eta gogoak ere baditu Akademiak, orain hemen eskaintzen dena etorkizunean euskararen beste baliabide linguistikoeekin batera ager dadin, Euskaltzaindiaren webgunera hurreratzen den orok ahalik eta informaziorik zehatzen eta hurbilena izan dezan. Horra, besteak beste, akademiaren ehun urteko mendeurrena, laster etorriko dena eta zirt edo zart egiteko modukoa izango dena haren egitasmo eta zereginetan.

Lan horretan euskararen doinu eta soinu dira partaide, egungo teknologiak ematen baitu horretarako bidea. Hainbatez, Akademiaren webgunea erabiltzen duenak entzungai izango du hainbat daturen mamia, hitza eta mintza egoki uztartuz. Egitasmo honen etorkizuna ere hortik etor daitekeela ezin ukatu.

Metodologia ez ezik, edukia bera ere azpimarragarria da, hor dagoelako, lehen-lehenik, eta Louis Lucien Bonapartek egin zituen hasierako lanen ondoren, hainbat euskalariren eginahalen eta ametsen emaitza erabakigarri eta eredugarria.

Ia ehun urte geroago, Euskaltzaindiak horretarako bidea jarri badu ere, ezin baztertu beste askoren laguntza izan duela Euskal Akademiak langintza horretan. Eskerrik beroenak guztioi (zuzendari, arduradun, taldekide eta bestelakoei), eta, bereziki, Laboral Kutxari, berak ahalbidetzen duelako, urtez urte eta eroapen handiz, lan honen argitalpena.

ANDRES URRUTIA
euskaltzainburua

Hortz
Garaun
Agosabai Eskua

AURKIBIDE OROKORRA

0. Aurkibide orokorra	XI
1. ATARIKOA	
1.1. Aitzinsolasa	XIV
1.2. Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren ezaugarriak.....	XVI
1.3. Inkesta-lekuen zerrenda.....	XX
1.4. Lekukoen zerrenda	XXVI
1.5. Alfabeto fonetikoa.....	XXXI
1.6. EHHako transliterazio-taula	XXXII
1.7. Bederatzigarren liburukiaren ezaugarriak.....	XXXIII
1.8. Erantzutegiaren ezaugarriak.....	XXXIV
1.9. Mapa motak.....	XXXV
1.10. Bederatzigarren liburuko indexak, laburdurak eta ikurrak	XXXVII
1.11. Bederatzigarren liburukiko datuen biltzaile, transkribatzaile eta informatizatzaileak.....	XXXIX
1.12. Bederatzigarren liburukiaren moldatzaileak	XLIII
1.13. Mapen aurkibideak.....	XLIV
2. MAPAK	1
3. AURKIBIDEAK.....	527
3.1. GALDEREN AURKIBIDE ALFABETIKOAK	528
3.1.1. Gaztelaniaz	528
3.1.2. Frantsesez	532
3.1.3. Ingelesezt	536
3.2. SUPERLEMEN INDEXA.....	540
3.3. ERANTZUNEN INDEXA.....	732

